

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

382/21 prozedura laburtuan epea jartzea

Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1. Epaitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (382/21 prozedura laburtua) izapidetzen ari da. 15368601R nortasun-agiria duen pertsonak aurkeztu zuen errekurtsoa, Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak 2021eko ekainaren 30ean emandako ebazpenaren kontra, zeinaren bidez ukatu egiten den Gasteizko Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 89.artikuluko borondatezko aurretiazko erretiroaren sariak jasotzeko eskabidea. Hortaz, horretan interesdun direnei ager daitezen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluari jarraituz; bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikuluaen ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 25ean

Udal legelaria

JON KEPA ZARRABE GARCÍA